



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

Zer jaten du moko horrek?

Lehen Hezkuntza 2. zikloa

ARLOA/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurumenaren ezagutza

Inoiz erreparatu al diozue hegaztien mokoien formari? Luzeak, motzak, meheak, lodiak, lauak edo sendoak izan daitezke, eta batzuek piraten kakoa dirudite! Baina, zergatik dira hain desberdinak? Hegazti bakoitzak moko berezia du bere janari gogokoena eskuratzeko.

Tamalez, batzuetan, hondakinak elikagaiekin nahasten dituzte. Hondakin horiek ez dira naturan berez agertzen. Zuen ustez, nola iristen dira ekosistemetara?